

CIS-ek egindako inkesten mikrodatu-fitxategiak (datu-matrizea), azterlanen gaineko dokumentazioarekin batera, deskonprimitu beharreko fitxategi konprimitu batean deskargatzen dira (MDxxxx.zip).

Fitxategi horretan azterlana esportatzeko beharrezkoak diren ondoko dokumentuak daude:

- **Mikrodatu-fitxategi anonimizatua** (DAxxxx) ASCII formatuan. (*'datu-fitxategiaren formatua' atala irakurri*)
- **Galdera-sorta** (cuesxxxx). .pdf formatuan.
- **Fitxa teknikoa** (Ftxxxx). .pdf formatuan.
- **Kodeen liburua** (codigoxxxx). .pdf formatuan.
- **Txartelak** (tarjetasxxxx). .pdf formatuan. (Elkarrizketa pertsonalaren bidez egindako inkestetarako bakarrik)
- Mikrodatuen fitxategia irakurtzeko **Sintaxi programa SPSS-n** (ESxxxx). ASCII formatuan. (*'Sintaxi fitxategiaren formatua-SPSS' atala irakurri*)
- Mikrodatuen fitxategia irakurtzeko **Sintaxi programa SAS-n** (Sasxxxx). ASCII formatuan. (*'Sintaxi fitxategiaren formatua-SAS' atala irakurri*)

Azterlanak mota bereko zenbait fitxategi dituenean (adibidez, galdera-sorta bat baino gehiago), fitxategi konprimitu berean sartzen dira guztiak. Era berean, mikrodatuen byte-tamaina kontuan hartuz, konprimiturik ere aurkeztu daitezke.

Fitxategiei edo beren edukiari lotutako edozein arazo baduzu, hona jo dezakezu:

Centro de Investigaciones Sociológicas

Departamento de Banco de Datos

Tel.: +34 91 580 76 17 / 22

Faxa: +34 91 580 76 19

e-maila: bancodedatos@cis.es

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:30etatik 14:00etara

DATU-FITXATEGIAREN FORMATUA

CIS-eko datu-fitxategiak ASCII testu-formatuan grabatzen dira eta SPSS, SAS, etab. bezalako edozein estatistika-programarekin tratatu daitezke.

Mikrodatu-fitxategi bat zenbaki-matrize bat da: errenkadak edo erregistroak elkarrizketatuei dagozkie, eta zutabeak, berriz, aldagaiei. Kodeen liburuan eta galdera-sortan, erantzun-kategorien ondoan, parentesi artean doan zenbaki batek zehazten ditu aldagai bakoitzak hartzen dituen zutabeak.

Antzina, matrizearen zutabe kopurua gehienez 80koa zen; hortaz, elkarrizketatu bakoitzaren informazioa osatzeko beharrezkoak ziren errenkada guztiak erabiltzen ziren. 80 zutabeko linea bakoitza TXARTEL (RECORD) bati dagokio. Txartel batetik beste baterako aldaketa galdera-sortan adierazten da. 1994ko otsailean egin zen 2.083 zenbakiko azterlanaz geroztik, CIS-eko galdera-sortak ez dira txartelen arabera egituratzen, eta linea batean grabatzen da elkarrizketatu bakoitzaren informazioa.

Mikrodatuak anonimizatuak daude elkarrizketatuen banakako identifikazioa ezagutzera emateko aukera saihesteko. Prozesu horren eraginez, aldagaiak azterlan zehatz bakoitzaren arabera alda daitezke, baina orokorrean hauek dira: herria, eskualdea, atala, barrutia eta elkarrizketatzailea.

SINTAXI FITXATEGIAREN FORMATUA - SPSS

Sintaxi fitxategia ASCII formatuan aurkezten da, baina SPSS estatistika-programarekin lan egiteko diseinatuta dago. Mikrodatuak behar bezala irakurtzeko beharrezkoak diren oinarritzko jarraibideak ematen ditu: aldagaien definizioa (DATA LIST) eta, ereduzko diseinuak hala eskatzen duenean, ponderazioa (WEIGHT). Fitxa teknikoan ponderazio-koefizienteak zehazten dira.

SPSS-ri dagozkion beste jarraibide batzuk ez dira jarraibide lehenetsiak, adibidez, aldagaien etiketak (VARIABLE LABELS) eta erantzun-kategoriak (VALUE LABELS) -beti erabilgarri edo osorik ez daudenak- eta RECODE, MISSING VALUES, FREQUENCIES, etab. bezalako komandoak.

1992 eta 1997 artean egindako inkestetarako, sintaxi programa SPSS-ren bertsio zaharren arabera idatzita dago, zehazki, UNIX-en bertsio zaharraren arabera, eta azken honen tratamendua desberdixeagoa da bertsio modernoagoen tratamenduarekiko. Kasu hauetan DATA LIST-aren gainean agertzen diren jarraibideak ezabatu beharko ditugu edo, behintzat, ez ditugu exekutatu, eta puntu (.) bat edo linea zuri bat izan daitezkeen komando-mugatzailak jarraibide desberdinen artean jarriko ditugu, jarraibideak bereizteko.

SINTAXI FITXATEGIAREN FORMATUA - SAS

Sintaxi fitxategia ASCII formatuan aurkezten da, baina SAS estatistika-programarekin lan egiteko diseinatuta dago.

Gutxienez, mikrodatuak behar bezala irakurtzeko beharrezkoak diren zehaztapenak ditu. Programan agertzen diren beste batzuk aldagaiak etiketatzen dituztenak eta erantzun-kategoriak dira.